

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2016. urtera arte 34,4 milioi euro jarriko du errepideak kontserbatzeko eta bide-segurtasunerako

Kopuru hori gaur arte bideen mantentze-lanetarako onartutako 60 milioi eurori gehitzen zaio

Miércoles, 30 de mayo de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran baimendu du errepideak kontserbazioko, bide-segurtasuneko eta edukieretako hamabi kontratu lizitatzea gehienez ere 34,4 milioi euroan 2012 eta 2016 urteen artean.

Kopuru hori gehitu zaio gehitu zaio, alde batetik, 2012-2015 aldirako Iruñea, Agoitz, Lizarra, Tafalla eta Tuterako kontserbazio-zentroen eraginpean dauden errepideen [kontserbazio integralerako kontratuak](#) esleitu ziren 50,6 milioi eurori; eta bestetik, Mugairi-ko (Baztan) inguruneko [errepideen kontserbazioa](#) 2012-2014 artean inbertituko den 8,3 milioi eurori.

Zehazki, Gobernuak gehienez ere 13 milioi euro jarriko du 2012 eta 2015 artean Irurtzongo Kontserbazio Zentroaren eraginpean dauden errepide nahiz autobideen kontserbazio integralerako. Zehazki, 7,05 milioi gastatuko da Leitzarán, Barranka eta Iparraldeko (A-15, A-10 eta A-1, hurrenez hurren) autobideetan. Eta 5,95 milioi euro, gehienez ere, errepideetan.

Kontratuek errepideetako bide-zaintzaren eta gertakarien arreta jasoko dute; errepide-bazterretatik zaborra kentzeko eta inautzeko lanak; galtzada, arekak edo drainatze-sistemak garbitzeko lanak; galtzadako konponketa zehatzak (bidezuloak, asentuak...); zoru-zatiak sendotzea; era guztietako konponketak (arekak, fabrikako lanak, hormak, egiturak...), eta ezpondak egonkortzeko lanak (harri-lubetak edo sareak jartzea harriak eror ez daitezen), besteak beste.

Halaber, errepideen kontserbazio integraleko arloan, Nafarroako Gobernuak Iruñean dagoen Errepideen Kontrol Zentroaren ustiapena eta mantentze-lana lizitatuko du, errepideen sarearen –eta haren menpe dauden sistema eta instalazioena (tunelak, argiztapena eta semaforoak) – zaintza eta kontroleko lanak zentralizatzen dituena. Lehiaketan jarriko da 7,5 milioi euroan. Zentroak tunelek dituzten kilometroen % 30 gehiago ikuskatu beharko du, Ledea-ko eta Esa-koak ireki ondoren, Pirinioetako autobidean (A-21), orain 20,3 kilometro baitira, lehen 15,2 zirenean.

Horren osagarri modura, Gobernuak gaurko bilkuran Nasertic enpresa publikoari 132.000 euro emateko agindua onartu du zentro horren telekomunikazio-sistemaren mantentze-lanetarako.

Bide-segurtasuna, edukierak eta zubiak

Bide-segurtasunaren kapituluan, Nafarroako Gobernuak sei kontratu 13,3 milioi euroan lizitatuko ditu segurtasun-hesiak jarri eta mantentze-lanetarako (2,55 milioi); seinaleztapen bertikalerako (4,3 milioi); eta bideetako markak pintatu eta berriz pintatzeko (6,45 milioi euro).

Gainera, Gobernuak baimendu du, zirkulazio-edukiari (plana eta materialak) lotutako 360.000 euro lizitatzea, eta beste 172.000 euroan lizitatzea errepide-sareko zubien egitura berraztertze laguntza teknikorako programa berri bat.

Kontratu horiek guztiak lau urterako lizitatuko dira, 2013-2016 aldirako edo 2012-2015erako (Irurtzungo Kontserbazio Zentroko autobideen eta errepideen kontserbazioaren kasua).